

**“Pablo Ibar” Heriotza Zigorren aurkako  
Elkartea**

Harremanetarako pertsona: Andres Krakenberger  
Telefonoa: 658 750 866

**Pablo Ibarren apelazioa  
Floridako Auzitegi Gorenean**

**Floridako Auzitegi Gorenaren epaia**

**Floridako Estatuaren errekurtsioa  
2014ko apirila**

**PABLO IBARREN APELAZIO BISTAREN  
TRANSKRIPZIOA ERE BADA KAR,  
FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKOA**



## **Edukiak**

- 1. Floridako Auzitegi Goreneko apelazioa**
- 2. Pablo Ibarren apelazioa, Floridako Auzitegi Goreneko ahozko ikustaldia. 2014ko apirilaren 8a<sup>1</sup>**
- 3. Auzitegi Gorenaren ezetza kasuaren jurisdikzioa Broward Countyko Auzitegiari itzultzeko eskaerari**
- 4. Floridako Auzitegi Gorenaren epaia, 2016ko otsailaren 4koa, Pablo Ibarren apelaziori buruzkoa**
- 5. Floridako Estatuaren berraztertze errekurtsua Floridako Auzitegi Gorenean, 2016ko otsailaren 4an Pablo Ibarren kontrako heriotza zigorra baliogabetu eta beste epaiketa bat egiteko agintzen zuen erabakiaren kontra**
- 6. Pablo Ibarren kasuaren laburpena**
- 7. Pablo Ibarrek auzitegietan egindako ibilbide luzea**
- 8. Pablo Ibarrek Floridako Auzitegi Gorenean egun egindako apelazioaren argudioak**
- 9. Ibar kasuaren kronologia: data eta gertakari garrantzitsuak**
- 10. Ohar garrantzitsua**

---

<sup>1</sup> “Pablo Ibar” Heriotza Zigorren aurkako Elkarrekin hainbat oin-ohar argigarri erantsi dizkio itzulpenari.

## 1. Floridako Auzitegi Goreneko apelazioa

2014ko apirilaren 8an, Pablo Ibarren apelazioaren ahozko ikustaldia izan zen, Floridako Auzitegi Gorenean, Estatuko hiriburuan, Talahaseen. 2012ko otsailaren 13an, Broward Countyko Auzitegi Levenson epaileak ezetsi egin zuen Ibarrek 2008an planteatutako zigor-ondoko berraztertze mozioa, eta horren ondorio zuzena da apelazio hori. Mozio hartan, beste epaiketa bat eskatzen zuen Ibarrek, besteak beste ez zirelako bere eskubide konstituzionalak errespetatu, ez baitzuen behar bezalako abokatu-laguntza izan.

Defentsak Auzitegi Gorenean planteatu zuen Broward Countyko Auzitegiak huts egin zuela beste epaiketa bat ukatuta, Ibarren defentsa ez zelako eraginkorra izan heriotzara zigortu zuen epaiketan; izan ere, defentsak aurkeztutako adituen testigantzen arabera, krimenaren lekuan grabatutako bideoa ez zen egokia hiltzailea identifikatzeko, eta Ibarren gorpuzkera ez zetorren bat bideoan agertzen zen hiltzailearenarekin.

Beste argudio bat ere planteatu zuen defentsak, alegia, Broward Countyko Auzitegiak oker jokatu zuela beste hainbat zirkunstantzia aintzat ez hartuta; adibidez, Ibarren ofiziozko abokatu ez egotea heriotza zigorroko kasu bat eramateko moduan, gutxieneko baldintzak ez betetzeagatik. Horren erakusgarri da lekukoak identifikatzen aditu den inoren lekukotza aurkeztu ez izana, ezta ingeniari baten azterketa ere, hiltzailea Ibar baino zentimetro batzuk baxuagoa zela erakusten zuena. Bere ikerketa propioak egiteko orduan ere ez zen arretatsua izan, eta ez zituen aurkeztu Ibar heriotzara zigortu zuen hilketa gertatu zenean Ibar beste leku batean zegoela erakusten zuten frogak.

Floridako Auzitegi Goreneko apelazio bistak horrela izaten dira: defentsak 20 minutu edukitzen ditu bere argudioak aurkezteko. Ondoren, Fiskaltzak aurkezten ditu bere argudioak, horretarako beste 20 minutu edukita. Azkenik, defentsak Fiskaltzaren argudioak labur-labur gezurtatu ahalko ditu. Horren guztiaren ondoren, epaileak pribatuan eztabaidatzera erretiratzen dira. Ondoren, kontuan hartzen dute kasua. Pablo Ibarren defentsaren ustez, sei hilabete eta urtebete artean beharko dute euren erabakia iragartzeko. Pablo Ibar ez zen Auzitegian izan: Ameriketako Estatu Batuetan, Espainian bezalaxe, apelatzaileak ez dira apelazio auzitegien aurrera agertzen. Tanya Ibar, Pablaren emaztea, eta Michael Ibar, Pablaren anaia, aldiz, han izan ziren.

Pablo Ibarrek 42 urte ditu gaur egun. 1994. urtetik dago kartzelan eta, 2000. urtetik, heriotzaren korridorean.

## **2. Pablo Ibarren apelazioa, Floridako Auzitegi Goreneko ahozko ikustaldia. 2014ko apirilaren 8a**

***OHARRA:** transkripzioaren itzulpen honetan, “Pablo Ibar” Heriotza Zigorren aurkako Elkarteak hainbat oin-ohar erantsi ditu, hori hobeto ulertzeko. Transkripzioaren ondoren, gainera, Pablo Ibar kasuaren laburpen osatu bat erantsi du “Pablo Ibar” Heriotza Zigorren aurkako Elkarteak.*

Bideoa ikusi eta ingelesezko jatorrizko transkripzioa deskargatu daiteke ondorengo esteka honetan:

<http://wfsu.org/gavel2gavel/viewcase.php?eid=2137>

**ALGUAZILA:** Zutik denok.

Entzun. Entzun, entzun.

Floridako Auzitegi Gorena saioa hastera doa.

Auzi honetan kausa duten guztiak hurbil daitezela, adi egon daitezela eta entzungo zaie. Jainkoak gorde ditzala Ameriketako Estatu Batuak, Floridako Estatu handia eta auzitegi ohoretsu hau.

Jaun-andreak, Floridako Auzitegi Gorena. Eseri, mesedez.

### **RICKY POLSTON EPAILEA, FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKO**

**PRESIDENTEA:** Ongi etorri Floridako Justizia Auzitegi Gorenera. Hauxe da gaurko lehenengo kasua: Ibar Floridako Estatuaren kontra. Hasi nahi duzunean.

### **BENJAMIN WAXMAN (PABLO IBARREN ABOKATU DEFENDATZAILEA):**

Egun on, epaile ohoretsu horiek. Auzitegiaren baimenarekin. Benjamin Waxman, Miami Robbinsi, Tunkey, Ross Amsel, Raben eta Waxman Abokatu Bulegokoa, Pablo Ibarri buruz.

Lau minutu gordeko ditut, kontraerantzuteko.

Irudi granulatu duen orain 20 urteko zuri-beltzezko eta soinurik gabeko bideo-zinta batean agertzen den hiltzaileetako baten irudi lausoarekin duen antzan oinarrituta zigortu zuten Ibar jauna. Auzitegi honek onartu zuenez, hori zen haien kontrako froga nagusia Ibarren eta Peñalverren<sup>2</sup> gaineko erabaketan. Kasu honetako frogarik garrantzitsuena, baina, hiltzailea errugabetu zuen kamiseta urdina zen, hark bere aurpegia estaltzeko erabili zuena eta hilketa-leku osoan 20 minutuz astindu eta biktima guztiarekin eta eszenatokiaren hainbat zatirekin kontaktuan jarri zuena, kamisetarekin aurpegia eta burua lehortu aurretik; horren ondoren, bizkar gainera bota eta etxe aurrean utzi zuen.

---

<sup>2</sup> Seth Peñalverri buruz ari da, kasu honetako beste akusatua. Heriotza zigorra ezarri zioten 2000. urtean, Ibarren zigorra ekarri zuten hilketa berberengatik; haren apelazioak arrakasta eduki zuen Floridako Auzitegi Gorenean. Auzitegi horrek 2006. urtean ebatzi zuen heriotzara zigortu zuen epaiketaren irregularitasun ugari egon zirela; horregatik, epaiketaren errepikatze agindua eman zuen. Egun batzuk geroago, beste epaile batean, Floridako Auzitegi Gorenak ebatzi zuen irregularitasun horiek berberak egon zirela Ibarren kasuan ere, baina bideo-zaintzako kameratik ateratako argazki lausoetan agertzen den pertsonaren irudia Ibarrena zela, eta irregularitasunek ez ziotela horri eragiten. Peñalverren epaiketaren errepikapena 2013ko ekainean hasi zen, eta 2013ko abenduan, errugabe aitortu eta kargu guztietatik absolbitu zuten.

Kamiseta osoa aztertu zuten, hiltzailearen arrasto biologiko bila. Froga guztiek, hau da, izerdiak, odolak, DNAk eta ileak, kanpoan uzten zuten Ibar jauna. Eta berdin-berdin hiltzaileak hilketan lekuan utzitako hatz-marka errugabetzaileek ere.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Kasuaren azken alegatua egiten ari zarela dirudi.

**BENJAMIN WAXMAN:** Auzitegi honi hainbat zuribide-froga zeudela eta, gainerakoan, frogak oso ahulak zirela azaldu nahian ari naiz, besterik ez.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Epaimahaiak entzun zituen froga horiek?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bai, epaimahaiak entzun zituen froga horiek; ez, ordea, aditu baten testigantza ezinbestekoa, kasu honetako froga guztien artetik garrantzitsuena den froga, bideo-zinta, aztertze eta oso kalitate txarrekoa zela eta Ibar jauna zentzuz eta modu fidagarrian identifikatzeko oinarri ezin izan zitekeela demostratzeko.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Landu dezakezu hori sakonago, horren guztiaren inguruko xehetasunak? Irakurri dut kasu honen inguruko materiala, eta uste dut ez dudala abokatu bakar bat ere ikusi abokatu horrek, Morgan jaunak<sup>3</sup>, kasu honetan jokatu duen bezala jokatzeko; arraroa da. Esan nahi dut nire iritziz bere jarrera ez zela profesionala, baina zer ezarri zen zigor-ondoko berraztertze mozioan, testigantza horren muinari dagokionez? Ulertzen dut, badakizu, oso gaizki heldu zitzaizkion horri guztiari. Aditu hura, aurpegiak identifikatzen aditua eta kontratatu zuen edo ez zuen antropologoa ere bai suposatzen dut, eta halakoak, onartzen badituzu, baina zer demonstratu zenuen zuek? Zer demonstratu zenuen zuek analisi horren kalteari dagokionez?

**BENJAMIN WAXMAN:** Munduko aditu handienetako bat aurkeztu genuen, Evans doktorea edo Evans jauna<sup>4</sup>, alegia, Erresuma Batukoa; bertan daude telebistako zirkuitu itxiko munduko kamera guztien bi heren-

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Hori da zure froga bakarra? Guztiz sinesten duzu froga horietan?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bueno, peritazio bat zen -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Zera galdetu dizut, horretan oinarritu zara?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bueno, Falsetti doktorearen<sup>5</sup> testigantzak ere egon ziren, horrelako testigantzen onarpenaren inguruan.

---

<sup>3</sup> Kayo Morgani buruz ari da, Pablo Ibar heriotzara zigortu zuen epaiketan horren ofiziozko abokatu defendatzailea izandakoaz. Morganek defentsaren lekuko gisa testifikatu zuen Ibarren zigor-ondoko berraztertze mozioaren froga-entzunaldian. Morganek beti esan du ez zegoela Ibar defendatzeko moduan. Ibar heriotzara zigortu zuen epaiketa bitan eten behar izan zuten; batean, Morganek gibeletako gaixotasun bat zuelako, eta bestean, Morgan atxilotuta zegoelako, indarkeria matxistagatik ekintza batean nahastuta egoteagatik. Begi bistakoa da egoera horretan abokatu defendatzaile bat ez dagoela heriotza zigorroko epaiketa bateko akusatua defendatzeko moduan. Horren erakusgarri da Morganek Ibarren defentsarako ezinbestekoak ziren testigantza eta azterketak aurkeztu ez izana.

<sup>4</sup> Raymond Evansi buruz ari da; Raymond Evans aditua da aurpegia identifikatzen Erresuma Batuko Unibertsitatean, eta maiz egiten du lan Scotland Yardentzat, izan ere, munduko aditu handienetako bat da aurpegiak identifikatzen.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Baina hark ez zuen kasu honen inguruan testifikatu, ezta?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez, ez zuen testifikatu.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Horretaz ari naiz kasu honetan, frogak...

**BENJAMIN WAXMAN:** Evans jaunak esandakoa du oinarri eta hark hainbat hamarkada daramatza honetan. Erresuma Batuko Manchesterreko identifikazio unitateko burua da, Erregistratutako Perituen Kontseiluko hiru adituetako bat.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Hori zen, hau da, hala zen gertakari horiek izan zirenean?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez, ez zituen gauza horiek guztiak lortu garai hartan, baina bai aitortu zuen -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Zer gertatzen da maila horretarako aurkezten ari zaren zientziarekin?

**BENJAMIN WAXMAN:** 2000. urtean ez zegoen zientzia gisa onartuta. Horren inguruan testifikatu zuen, eta esan zuen bera eta bere aholkularia, Richard Need -

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Zertan oinarritzen zen bere analisisa? Ez zen oinarritzen bideoaren eta krimena gertatu eta epaiketa izan eta urte batzuetara akusatuari ateratako argazki batzuen arteko konparazioan?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bueno, hainbat analisi egin zituen, eta horietako bat, aktako nagusia, bere azterketa egin zuen egunaren inguruan Ibar jaunari hartutako argazki batean oinarritzen da, eta bere testigantza izan zen -

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Delituaren garaiko argazkiak ere erabili zituen, erreserba bateko argazki bat adibidez edo - ziur nago bazeudela Ibar jaunari krimenaren garaitik hurbilago ateratako argazkiak. Aztertu zituen?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bai, aztertu zituen, baina arazoa zen ez zituztela aurpegiaren kartografia eta kasua aurkezteko ezinbestekoak ziren beste analisi biometriko batzuk egiteko behar ziren angeluak, eta egin zuena izan zen -

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Beraz, haren ondorioak ondorengo argazki horietan oinarrituta daude, ez aurreko argazkietan?

**BENJAMIN WAXMAN:** Hori da. Eta zera testifikatu zuen: berak oinarri hartutako fakzioak ez direla adinarekin aldatzen; hala, ebatzi zuen Ibar jaunaren masailezurraren lerroa, aldatzen ez dena, ez datorrela bat hiltzailearenarekin, eta ezpainen tankera ez

---

<sup>5</sup> Anthony Falsetti doktoreari buruz ari da; auzitegi antropologiako irakaslea da Floridako Unibertsitatean, eta C.A.Pound Giza Identifikazio Laborategiko burua da. Auzitegi Antropologiako Ameriketako Batzordeko (American Board of Forensic Anthropology) diplomaduna ere bada, baina Ibarren defentsak ez zuen kontratatu, nahiz eta tokiko aditua izan arlo horretan.

datorrela bat hiltzailearen ezpainen formarekin. Eta ezpaina eta ahoaren tankera ez zetozen bat hiltzailearenekin. Hori da, hain zuzen, Peñalverren perituak 1997an, bi salatuen aurkako lehenengo epaiketan, aurkeztutako testigantza mota; gero, errepikatu egin behar izan zuten epaiketa, epaimahaikideak ados jarri ez izanagatik.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Evans jaunak esandakoari begiratzen diogunean: zera diot, kezkarria da niretzat abokatu horrek agian egin ez zuena, baina arazoak ditut, oraindik, letratuaren babes ez eraginkorraren ondoriozko kaltearekin, eta Evans jaunaren testigantzari begiratuta, azal iezadazu, mesedez, zergatik arlo berezi horretan aditua dela onartzen badugu, iruditzen zaidan azken analisian, esaldi batean dioen pertsona hori ez dela Ibar jauna baina bere testigantzaren beste zati batean, itaunketara iritsitakoan, baietz, Ibar jauna izan litekeela. Beraz, zer egingo dugu pertsona hori Ibar jauna den edo izan litekeen zalantza egiten duen norbaiten testigantzarekin?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez dut uste inoiz testifikatu duenik Ibar jauna izan litekeela, ez baitzen hori eman beharreko testigantza.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Ibar jauna izan litekeela dio, ados?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez dago desberdintasunik, ez dago desberdintasunik Iscan doktoreak<sup>6</sup> Peñalverren epaiketan emandako testigantzarekin eta Auzitegi honek Peñalverri buruz onartutako epaiarekin.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Ibar jauna izan litekeela dioten frogak hartu, eta epaiketan testifikatu zuten beste pertsona batzuen frogei erreparatu diegu; froga horien arabera, argazki hori Ibar jaunarena zela uste dute. Gizonezko biktimaren auzokidearen testigantzari erreparatuta, biktimaren etxeko sarreratik autoan irten zen pertsona Ibar jauna zela dio. Zer suposatzen da egin behar dugula testigantza horiekin guztiekin?

**BENJAMIN WAXMAN:** Uste dut hurbilgotik begiratu behar diezuela testigantza horiei; izan ere, hirugarren lekukoak deitzen ditudan testigantza, familiako kide eta ezagunena, pertsona gehienek ukatu egin zuten epaiketan... -

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Ez naiz ari, sikiera, apelazio zuzenean funtsezko egozketa-froga gisa ezin sar zitezkeela esandakoez; izan ere, horietako batzuk... hori esan genuen, ezta?

**BENJAMIN WAXMAN:** Hala da.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Horiek ez dute balio funtsezko froga gisa, baina esan genuen lekuko horietako pare baten testigantza sar zitezkeela, eta benetan interesatuago nago gizonezko biktimaren auzokidean, auzotik autoan irten zen bidaiaria Ibar jauna zela, haren atzetik zihoala eta elkarrengandik oso gertu zeudenez denbora tarte batean ikusi zuela zioen pertsonan.

**BENJAMIN WAXMAN:** Uste dut Auzitegiak gauza pare bat hartu behar dituela gogoan lekukotza honi buruz. Lehenik eta behin, Foy jaunak<sup>7</sup> ez zuela sekula

---

<sup>6</sup> Mehmet Iscan doktorea, auzitegi antropologian aditua, Peñalverren epaiketan peritu gisa testifikatu zuena. Beste hainbat kasu garrantzitsutan parte hartu du, Oklahoma Cityko lehergailuaren kasuan, adibidez.



identifikatu Ibar jauna auzi-gelan. Ez zuen sekula esan “hor dago nik leku hartan eta une hartan ikusi nuen pertsona”. Ez zuen esan, sikiera, ikusi zuen argazkian ikusi zuen pertsona Ibar jauna zela. Auzitegian esan zuen argazkiko pertsonak bola-jokoan berarekin aritzen zen pertsona baten antza zuela, Justinena; hori testifikatu zuen, baina hortaz aparte, lekuko gisako bere testigantza, egon litekeen lukukotza aurkaragarriena izan zen. Bai maila instituzionalean, badakigulako zein hutseginkorrek diren lekukoen identifikazioak, eta Ibar jaunaren gaineko behaketa mugatuaren inguruko zirkunstantziei dagokienez, testifikatu zuen...-

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Oker ez banago, uste zuen esan zuela sei minutuko tartean ikusi zuela, gutxi gorabehera, hainbat etapatan; elkarren ondoan zihozela, bi autotan, eta Ibar jaunak, badakizu, goitik behera begiratzen ziola, horrelako informazioa. Beraz, esan nahi didazu Foy jaunak ez zuela sekula esan, benetan, Ibar jauna zela autoan zihozan bidaiaria?

**BENJAMIN WAXMAN:** Identifikazioaren zirkunstantziak ... -

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Esan zuen edo ez zuen esan Ibar jauna zela?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bueno, argazkien despliegan -

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Autoa auzotik, biktimaren etxeko sarreratik, irten zenean, esaten ari naiz.

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez. Benetan testifikatu zuena izan zen berak bi argazki hautatu zituela, ez bat bakarrik, argazki despliegan, eta Ibar jauna hautatu zuela identifikazio-saioan. Horixe testifikatu zuen. Ez zuen sekula epaimahaiaren aurrean testifikatu behar izan Ibar jauna -

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Ez dizut galdetu aretoan esan zuenaz, hau da - Autoan zegoen pertsona hori zela esan zuen?

**BENJAMIN WAXMAN:** Aitortu zuen hori zela identifikazio-saioan hautatu zuen pertsona, eta hori izan zen bere testigantzaren ardatza. Baina horrenbeste ziren bere identifikazioaren inguruko arazoak... Horietako bat oso... ez ziren sei minutu izan sikiera. Berak testifikatu zuen 10-15 segundoan kointziditu zutela semaforoan, bi beira-joko tintatutatik zehar begiratu zuenean, buru-euskarrien artetik, eguzki atera berrirantz, eta orduan identifikatu zuen. Arazo asko zeuden, ordea, arazo asko zeuden identifikatzeko. Baztertze estrategia erabili zuen eta, argazkietako identifikazioan, antzekotasun erlatibozko estrategia. Gure adituak, zigor-ondoko prozeduran aurkeztu genuenak, esan zuen horiek direla fidagarriak ez diren identifikazioekin lotzen diren estrategiak. Ibar jaunaren argazkia bakarrik erakutsi zitzaion identifikazio-saioaren aurretik. Denbora gutxi izan zuen argazkia ikusteko. Bera ez zegoen, aldibereko argazki-despliega aurkeztu zioten, argazki sekuentzialen orde, nahiz eta polizia

---

<sup>7</sup> Gary Foyren identifikazioa Ronald Fisherrek desegin zuen, Floridako Nazioarteko Unibertsitateko psikologia irakasle eta unibertsitate horretako Lege Psikologia Programaren koordinatzaileak, argazkietan eta identifikazio-saioan egindako identifikazioaren moduagatik. Hori da Floridako Auzitegi Goreneko oraingo apelazioan aurkeztutako argudioetako bat.

departamentuek gaur egun horiek erabili, aurkezten direnak baino fidagarriagoak direlako. Ez zen izan itsu-itsuan egindako aurkezpena. Beste hitz batzuekin -

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Baina... Aktan ez dago frogarik identifikazio-saioan egindako Ibar jaunaren identifikazioa modu independentean eta horrek kutsatu gabe egin zela babesten duenik? Ez al zuen lekukotza horretan esan, zuzendu iezadazu oker banago, identifikazio-saioan Ibar jauna ikusi zuela eta esan zuela “hori da tipoa” “hori da tipoa”? Badago horren testigantzarik?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bere testigantza inekibokoa izan zen; izan ere, onartu zuen argazkien erakusketak eragina eduki izan zezakeela identifikazio-saioko bere aukeraketan. Hala, printzipio zientifiko horri buruz testifikatuko zuen guk zinpeko aitorten bidez aurkeztu genuen adituak -ez baitzaigu utzi, sekula, horren inguruko testigantza aurkezten-, identifikazio partikular honetan emandako lekukoen identifikazioen inguruko gainerako zehazgabetasunez gainera.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Prozeduraren lehen etapetan protestatu zen identifikazio-saio horren inguruan?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ezabatzeko proposamen bat aurkeztu zen, baina ezabatze-proposamen hori berehala zentratu zen auzitegi honek bere ustez zuzeneko apelazioan tratatu zuen abokatuaren defentsa eraginkorrerako eskubidean, eta sugestioaren eta fidagarritasun ezaren inguruko gaiak bigarren plano batera pasatu ziren, eta horixe da zigor-ondoko gure berraztertze mozioan planteatu dugun gaietako bat, auzitegi honek ez baitu dagokion arreta jarri horretan. Beraz, hori da beste gaietako bat; garai hartan zituen gaixotasun eta tragedia pertsonala zirela eta, Morgan jaunak ez baitzuen neurria eman gai horretan. Ez zuen neurria eman, ez baitzuen aurkeztu krimenaren lekua aztertu eta neurriak hartu zituen ingeniari<sup>8</sup> baten testigantza; haren arabera, egilea Ibar jauna baino 2 ½-3 ½ hazbete baxuagoa zen.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Bueno, non izan zen hori? Non izan zen hori? Ingeniariaren testigantza ez zuela erabili diozunean, ingeniariaren zerbitzuak eskuratu zituen?

**BENJAMIN WAXMAN:** Bai, eta haren zinpeko aitortpena zigor-ondoko mozioan aurkeztutako materialen artean dago, baina ez zitzaion sekula deitu errugabetasuna froga zezakeen lekuko horri, eta identifikazioa izan zen arazo bakarra. Froga guztiak daude. Ez dago modurik hiltzailea...

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Ingeniariari dagokionez, ez zuen egin, ez haren testigantzen parte bat ez zen bere analisiaren errore-marjinari buruzkoa? Errore-marjina aintzat hartuz gero, haren testigantza ez litzateke hain garrantzitsua izango, ezta?

**BENJAMIN WAXMAN:** Errore-marjin bat bazegoela testifikatu zuen, baina 2 ½-3 ½ hazbeteak errore-marjinatik kanpo zeuden, zalantzarik gabe. Errugabetasuna frogatzeko

---

<sup>8</sup> Clifford Mugnierren testigantza ari da. Ingeniaritza Zibileko irakaslea da Louisianako Unibertsitate Estatalean, Baton Rougen, Louisianan. Horren aurretik GPA Associates izeneko fabrika bateko zuzendaria izan zen; bertan, analisi geodetiko eta fotogrametrikoa egiten zuten New Orleansen, Louisianan.

frogak ziren, baina, heriotza zigorra duen kasu batean, non identifikazioa zen arazo bakarra eta gainerako frogak errugabetu egiten zuten; Ibar errugabetzen zuten, haren DNA, ilea, ez baitziren kamisetan ageri. Hiltzaileak kamiseta horrekin garbitu zuen bere aurpegi izerditsua, kamiseta zuten, eta aztertu egin zuten! Tipo hori makila batekin sartu zen etxean, makilak identifikatu gabeko bi hatz-marka zituen, Ibar jaunarenekin bat ez zetozenak, eta makila etxera eramateagatik zigortu zuten. Errugabetzen zuten froga asko zeuden, errugabetzen zuen eta hiltzailea ez zela bera erakusten duen beste testigantza bat lortu behar zuten.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Erantzuteko duzun denboran zaudenez, hain zuzen ere, ziurtatu nahi dut zigor-ondoko zure mozioan eta ustezko zure Bradyan<sup>9</sup>, uneren batean inork esan al zuen balizko beste bi susmagarriak izan zitezkeela krimen honen, krimen horien egileak?

**BENJAMIN WAXMAN:** Balizko beste susmagarri pila bat zeuden -

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Zigor-ondoko mozioaz ari naiz. Orain badakigu Peñalver jauna -

**BENJAMIN WAXMAN:** Absolbitu egin dute.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Absolbitu egin dute, bai. Eta zuk ez duzu ezer planteatu Peñalverren epaiketatik ateratako guztiaz, badago beste susmagarriren baten inguruko frogarik?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez, hasieratik zegoen informazioa besterik ez. Sucharski jaunak etsai ugari zituen, berekin liskarrak zituen jende asko. Hernandez jauna Lee kaleko etxeko gainerako pertsonetako bat izan zitekeen. Hainbat iradokizun egin ziren, bai.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Baina, horiek guztiak ezagunak ziren epaiketaren unean? Atera da ezer berririk argitara? Atera zen ezer berririk argitara?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ezer berririk ez, beste susmagarri bati buruz ari bagara, baina aurkeztu ziren frogak errugabetu egiten zuten gaia dago berriz ere, eta froga gehiago ere bazeuden, froga horiek ikusita bideratu beharrekoak. Gorde egingo dut erantzuteko dudan gainerako denbora, eskerrik asko.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Auzitegiaren baimenarekin. Leslie Campbell, fiskal nagusiaren bulegotik, Estatuaren izenean. Kasu honetan ez da frogatu abokatuaren laguntza ez eraginkorra izan zela. Dela Morgan jaunak aurpegiaren identifikazioan aditua den pertsona bat kontratatu ez duelako, edo lekukoei itaunketa egin ez dielako.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Ez zenuke ados egon behar, baina, transkripzioetan oinarrituta, Morgan jaunaren gaixotasunarekin eta Morgan jaunaren gorabehera

---

<sup>9</sup> “Ustezko zure Bradyan” esaerarekin, AEBetako Auzitegi Gorenaren aurrekari bati buruz ari da Barbara J. Pariente epailea. *Brady v Maryland* kasua, (373 U.S. 83 kasua), 1963koa, AEBetako Auzitegi Gorenak ebatzi zuen, eta horren lehena eta ondorena markatu zituen: Fiskaltzak ez zizkion froga jakin batzuk eman defentsari eta, hortaz, AEBetako Konstituzioko hamalaugarren zuzenketak aurreikusitako bermeak urratu ziren

pertsonalekin eta Morgan jaunak berak froga-entzunalduan<sup>10</sup> beste gauzak batzuk egin ahal izan zituela aitortuta, bukaerara arte jarraitu ahal izan zuela, aurpegiaren identifikazioan adituei buruzko ezagutzak zituelako, ez da hala?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Berak bazekien lehen epaiketako auzitegi antropologoarena, Ibar jauna eta Peñalver jauna batera epaitu zituztenekoa. Hala eta guztiz ere ...

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Falsetti jaunarena ere ez zekien une hartan?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bai.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Eta epaiketa berrian ere bai?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bai, eta Falsetti jaunak, abokatu laguntzailearekin harremanetan egon zenak, harekin hitz egin eta frogak eskuratzeko dirua lortu zuen, lortu zituen eta argazki frogak...

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Ongi ulertu badut, Falsetti jaunak bere fitxategiak begiratu zituen berriz ere froga-entzunalduan, eta kasu honi buruzko telefonozko elkarrizketa bat baino ez zuen aurkitu. Egia esan, ez dugu frogarik, esan nahi dut abokatu laguntzaileak ez zuela sekula froga-entzunalduan deklaratu, ezta?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ez, ez zuen egin, eta Ibar jaunaren karga da frogatzea Falsetti jaunak edo beste adituren batek jaso edo ikertutako frogarik.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Falsetti doktorearen testigantza daukagu.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Falsetti doktorearen testigantza daukagu, ez zela ezer jaso izanaren jakitun. Hark kontsulta gisa identifikatutakoa daukagu, haren definizioaren arabera materialak jasotzea, materialak ikuskatzea eta material horiei buruzko erabakiak hartzea dena.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Biei batera egindako epaiketan, egon zen aurpegiaren identifikazioan aditurik?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Mediku bat egon zen, auzitegi antropologo bat, ez aurpegiaren identifikazioan aditu bat. Bi egon ziren. Eta haiek -

---

<sup>10</sup> 2009ko martxoaren 16tik 19ra bitartean, Broward Countyko Auzitegian, Levenson epailea buru zela, izandako froga-entzunalduan ari da. Entzunaldu horretan, Pablo Ibar ere bertan izan zen, Floridako Auzitegi Gorenak hemen besteak beste aztertzen duen zigor-ondoko berraztertze mozioa planteatu zen. Mozio hori xxxxean formulatu zen. Froga-entzunaldu hori baino pixka bat lehenago ezusteko lekuko bat agertu zen, Juan Gispert, eta esan zuen krimenaren benetako egilea William Ortiz zela eta kartzelan zegoela, esku artean dugun kasuarekin batera zerikusirik ez zuen beste kasu batengatik. Levenson epaileak, ongi irizita, aurrena kontu hori argitzea erabaki zuen, zigor-ondoko berraztertze mozioari buruz ebatzi baino lehen. Fiskaltzarekin hainbat hilabetetan eztabaidan aritu ondoren, Ortizen DNaren eta krimenaren lekuan jasotako DNaren arteko alderaketa egin behar duen laborategi motaren inguruan, negatiboak irten ziren. Hatz-marken alderaketak negatiboak irten ziren. Beraz, kargugabetu egin zuten Ortiz, baina paradoxikoa da Ibarren DNA eta hatz-markak ere krimenaren lekuan aurkitutakoekin bat ez etortzea. Azkenean, 2012ko otsailaren 12an, Pablo Ibarren defentsak planteatutako zigor-ondoko mozioa ezestea erabaki zuen Levenson epaileak. 2012ko maiatzean, erabaki horren kontrako apelazioa egin zuen defentsak Floridako Auzitegi Gorenean, eta horri buruzkoa da bista.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Eta testifikatu zuten?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Lehenengo epaiketean testifikatu zuten.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Peñalver jaunaren alde testifikatu zuten?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bai.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Eta aditu horietako batekin hitz egin zuen abokatu laguntzaileak eta esan: ez da, ez du Peñalver jaunaren antzarik, baina are gutxiago Ibar jaunarenik?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bai, hori Iscam doktorea da.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Bueno, hori ulertu nahian ari naiz. Eta errekurtsogilearen abokatuak egin duena, hain zuzen ere, uste dut nirekin ados egongo zinatekeela lehenengo epaiketaren amaieran oso ongi argudiatu zuela, baina izugarri kezkatzen nau jakiteak froga horiek, testigantza, benetan kritikoak direla argazkikoa nor den jakiteari dagokionez, eta aurpegiaren identifikazioan aditu bat egon zela jakinda, abokatu laguntzaileari “honek ez du Ibar jaunaren antzarik” esan ziona, gutxienez, zergatik ez zenuke zerorrek hori bera egingo, beste epaiketa batean aurreneko egin behar zena bezala? Ez dagoela akatsik diozu. Ezin dut ulertu, ez dut ulertzen. Ezin dut ulertu nola esan dezakezun ez zegoela akatsik, zirkunstantzia horietan?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Lehenik eta behin, lehenengo epaiketean ez zen egon Ibar jaunaren aldetik, ez zen defentsarik egon, alibiari dagokionez. Beraz, hori berria izan zen bigarren epaiketean. Lehenengo epaiketean, Iscan doktoreak zioen ...

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Ez. Mesedez, heldu aurpegiaren identifikazioan adituaren gaiari, hori nola den, zergatik den zentzuzkoa. Izan ere, nolatan, alibidun defentsa edukita, bera ez dela esanda, hori ez da funtsik gabeko defentsa?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ez, ez da, hala ere, gu, Evans jaunera mugatzen ari gara hau – edo orokorrean ari gara?

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Ez dagoela akatsik diozu, eta nik honetan zentratu nahi dut, besterik ez: nolatan arrazoizko abokatu batek ez lukeen esango begira, entzun, lekuko ezjakin hauek hau esaten ari dira, Peñalver jaunak erabili duen aditu mota bera erabili behar dut eta ez nuke honekin guztiarekin sakon joan behar?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ulertzen dut zure galdera, andrea. Testuingurua sortu behar dut, besterik ez. Peñalver jaunaren eta Ibar jaunaren kontrako baterako epaiketean ez zuten esan zehazki haiek ez zirela Peñalver jauna eta Ibar jauna. Esan zutena zen ezin zutela zehaztu haiek ziren edo ez, zientzialari batek esan lezakeen mailan.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Hori nahiko testigantza garrantzitsua da, ordea. Beste pertsona batzuk dituzu... argazki honi begiratu eta haren antza duela esan dezaket, eta adituak diren pertsonak diote hori ezin dela zehaztu argazki hauetatik,

horrek, nire buruan bederen, zalantzarako aukera bat sortzen du lehenik eta behin, horren bila ariko ginateteke, eta ez zutela testifikatu usteari dagokionez, kasu honen emaitzaren inguruko konfiantza hondatzeko gaitasuna du, hau da, Ibar jauna hilketa latz horren egileetako bat ote den.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** eta zuk Evans jauna eta adituek, baterako epaiketako adituek eta zigor-ondoko moziokoek, denek esaten badute akusatu bat ezagutzen dutenek edo pertsona bat ezagutzen dutenek zehaztu dezaketela argazkiko pertsona ezagutzen duten pertsona dela. Maila handiagoa exijitzen zaion aditu batek baino gehiago, maila zientifikoarekin esan beharra, zera den edo ez den maila zientifikoarekin-

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Hori esan zuten? Uste dut arazo bat edukitzen ari naizela, dudala, pertsona batek dakienaz benetan esan zuenari buruz, hau da, akusatua ezagutzen duen pertsona ezjakin batek ere, adibidez, aukera hobeak dituen edo ez norbait argazki batetik identifikatzeko?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Zehaztu zezaketen; aditu bat, berriz, esperientziatzeko maila zientifiko jakin bat exijitzen zaiona, ez litzateke hori baieztatzeko gai izango, lanbidearen eskakizunak direla-eta. Akusatua ezagutzen duen eta arlo horretan ezjakina den pertsona batek, ordea, esan dezake, bai, hori Ibar jauna da edo horrek Ibar jaunaren antza du, egin dezake hori; gaian ezjakina den pertsona batek adieraz dezake hori, eta egiaztat jo.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Baina nik uste nuen aditu horiek ere pixka bat harago zihoazela, eta Ibar jaunaren abokatuak adierazi berri duen bezala, aurpegiaren ezaugarrien inguruko hainbat gauza erreparasatu zituztela, benetan Ibar jaunarenarekin ez zetozeela bat ondorioztatzeko?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Eta Evans jaunaren testigantzari begiratzen badiogu, Evans jaunak esaten du, azkenean, berak ez lukeela baztertuko, ezingo lukeela baztertu Ibar jauna bideo horretako hiltzailea denik. Eta berak neurtutako hainbat ezaugarri bat zetozen, itxuraz, Ibar jaunarekin, eta beste batzuk, ez, baina kontuan hartzekoak dira irudi distortsionatu eta granulatuak eta beste zenbait faktore.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Alegia, zure ondorioa da adituen testigantza dela... zer da zehazki? Litekeena dela hori Ibar jauna ez izatea baina izan litekeela? Edo zer da zuk diozuna? Zein diozu zuk dela adituen ondorioa?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ez dela erabakigarria eta Ibar jauna ezin dela baztertu. Epaille andreak lehen adierazi duen bezala, horrek Foy jaunaren, familiaren eta besteren, lagunaren, testigantzarekin uzten gaituela, bai eta erailketaren ondoren, hain zuzen ere, Ibar jauna biktimaren Mercedesean kokatzen zuen lagunarenarekin. Bere etxera zihoan eta hainbat lekukok ikusi zuten auto horretan.

**RICKY POLSTON EPAILEA, FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKO PRESIDENTEA:** Hitz egingo diguzu, mesedez, kamisetak DNAririk ez edukitzeaz?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Epaille jauna, frogak falta zirelako, hain zuzen, ez dakigu Ibar jauna izerditan ari zen edo ez. Ez dugu segurantzirik bertan epitelialik edo

DNArrik utzi zuenik. Horrek ez du esan nahi kamiseta hori ez zenik delitua egin zuenean erabilitakoa. Hori zen Estatuaren teoria, hori zen, baina DNArrik ez egoteak ez du esan nahi, derrigor, ez zenik Ibar jauna hiru biktimen kontra tiro egin zuena eta, ondoren, biktimaren autoan egon zena.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Baina egon zen balizko hirugarren baten frogarik, ezta?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bai.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** DNA frogak eta hatz-markak bat ez etortzea. Zer da...? Badu zerikusirik hizpide dugunarekin?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Kasu honetan, ez, epaile jauna. Informatzaile konfidentzial bat hirugarren bati buruzko informazio jakin batekin aurreratu zen. Estatuak eta defentsak pertsona hori konprobatu zuten eta -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Baina krimen hau gertatu zen lekuan aurkitutako zerbaitekin bat zetorren ikusteko izan zen, ez da hala?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Hala da, aurkitu zena harekin alderatu zen, eta nik jakin dudanez -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Eta bi egileen materialarekin alderatutako material hori beraren kontra formulatu ziren karguak?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bai.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Eta zer demostratzen zuen horrek?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ibar jauna ez zegoela material horretan.

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Bai, horregatik nago hemen eserita, eta Polsten epaile presidenteari erantzun diozu, zuk esan diozu agian ez zela bere kamiseta, baina Estatuaren teoriaren arabera baietz, haren kamiseta zela. Zuk esan duzu agian bera ez zela izerditu, baina norbaitek bertan utzi zuen bere DNA. Kamiseta hori zeraman norbaitek, hori horren DNA zen, pertsona horrena. Kamisetatik DNArrik jaso izan ez balitz bezala.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Hainbat material jaso zituzten. Batzuk ez ziren izan erabakigarriak, eta beste batzuk ez zetozen bat -

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Alegia, kamiseta berea izanda, kamisetakoa bere DNA ez izatearen zure erantzuna da, esaten ari zara agian ez zela benetan zeraman kamiseta edo agian ez zuela DNArrik utzi, baina kamisetak bazuela DNArrik.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Frogak egon ziren kasu honetan -

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Muga zaitetz hori azaltzera.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Kasu honetan, frogak erakusten dute, halaber, etxe horretan arropa eta beste hainbat gauza partekatzen zituztela, eta ez dakigu Ibar jaunak kamiseta hori jantzi zuen edo ez. Badakigu hark buruan zuela. Beraz -

**RICKY POLSTON EPAILEA, FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKO**

**PRESIDENTEA:** Ados egongo zinateke - ados zaude kamiseta hori zela hiltzaileak zeramana?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Hori da Estatuaren teoria. Lotura bat zegoen Ibar jaunaren eta kamiseta horren logoaren artean.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Benetan ilea aurkitu zuten kamisetan? Ilea aurkitu zuten kamisetan?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Hala uste dut.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Alegia, ilea, izerdia eta odola aurkitu zituzten kamisetan?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Epaietako testigantza... ez dut uste kamisetan odolik aurkitu zenik, baina epaietako testigantza izan zen epaietan ahalegin handiak egin zirela DNA aurkitzeko. Epaietaren ondoren egin ziren ahalegin osagarri horiek eta DNA apur bat aurkitu zen. -jaunari dagokionez -

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Atzera itzuli eta Falsetti jaunari buruz eta defentsaren eta Falsetti jaunaren arteko interakzioari buruz galdetu nahi dizut.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ez.

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Ez zitzaion ordaindu, orduan?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ez. Baina badakigu mozio bat onartu zela funtsak esleitzeko. Badakigu, halaber, telefonozko deiak egon zirela, gutxienez telefonozko dei bat eta fax bat egon zirela Barbara Brushen<sup>11</sup> eta Morgan jaunaren artean, eta horri buruzko bi fax egon zirela, bai eta Falsetti doktorea defentsaren aditua izango zela zioen bat ere. Baina apirilaren hasieraren, alegia, epaietaren hasieraren eta defentsak alibiari buruzko bere argudioa planteatzen duen unearen arteko momenturen batean, alde batera utzi zen Falsetti doktorea eta estatua, defentsa alibiari buruz aritu zen. Baita ere-

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Hitz egin iezadazu froga-entzunaldian testifikatu ez zuen abokatu laguntzaileaz. Badago froga-entzunaldian agertu ez izanaren azalpenik?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ibar jaunak erantzun beharko luke hori.

**CHARLES T. CANADY EPAILEA:** Baina espedienteari dagokionez, ez dio hilda edo dagoenik?

---

<sup>11</sup> Barbara Brush ofiziozko abokatua da, Pablo Ibar kasuan Morganen abokatu laguntzaile izendatutakoa.



**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ez, ez. Ez zitzaien deitu. Morganek zion ardua handia jarri zuela berak frogak deskubritzeko eta Brush andrearen adituekin. Beraz, Ibar jaunari zegokion, Brush andrea deskubritzen ari zena ikusita, hartutako erabakiak arrazoizkoak ez zirela izan frogatuko zuten adituak aurkeztea. Frogaren karga akusatuarena da, bai defizientziak eta bai aurreiritziak frogatzeko orduan.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Utz iezadazu hau galdetzen. Zer, azal iezadazu, zer geratzen da, zure ustez, Estatuak Ibar jaunaren kontra aurkeztutako frogetatik?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bideo-zinta dago oraindik, epaimahaiak ikus zezakeena. Epaimahaiak hainbat hilabetetan ikusi zuen Ibar jauna, bai eta bideoa begiratu ere. Beraz, gai ziren zintan agertzen zena eta katuak sakatu zituen Ibar jauna zen edo ez bereizteko. Foy jauna ere badago. Foy jaunak lehenengo egunetik eutsi dio Ibar jaunaren bere identifikazioari. Testigantza da Foy jaunak bazekiela hasieran erakutsi zioten argazkikoa Ibar jauna zela. Beldurtuta zegoen. Egia esan, ez zuen deklaratu nahi. Bazekien hilketa kasu bat zela. Beraz, bigarren bat hartu zuen, bigarren argazki bat aukeratu zuen. Baina bazekien Ibar jauna zela. Gero, identifikazio-saioan, Foy jaunak berehala hautatu zuen Ibar jauna biktimaren auzotik irteten ari zirela goitik behera begiratu zion pertsona gisa. Haren etxetik eta haren auzotik irteten. Badugu, halaber -

**BARBARA J. PARIENTE EPAILEA:** Benetan garrantzi handia ematen diozu Foy jaunak lekuko gisa egindako identifikazioari. Identifikazio horren inguruko nire kezka Floridako Errugabetasun Batzordeak adierazitakoa da, alegia, lekuko identifikazioa edo identifikazio okerra dela Floridako okerreko zigoren arrazoi nagusia. Beraz, ni kezkatzen nauena, nire kezka dira nola hasierako argazkian hura erakutsita sortutako sugestioa dela-eta, horixe bera egin zen hasierako epailetan, pertsona kopuru jakin batetik hiruk edo lauk gutxienez, testifikatu zuten lekuko ezjakinek, errorea zela esan genuen baina lehenengo errekurtsioan ez zela kaltegarria esaten amaitu genuen. Orain irudi osoa ikusita, ordea, galdera da erruduntasun fase horren emaitzaren inguruko gure konfiantza ahuldu behar dugun, gaur goizean planteatutako kezka hauen guztiengatik...

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ez, ez dut uste emaitzaren inguruko konfiantza ahuldu denik, eta arrazoiak da guk Foy jauna eta bideoa ez ezik jantziak ez diren lekukoak ere edukitzea. Auzitegiarentzat oroigarri gisa baino ez, Poliziako funtzionarioen testigantzari erreparatzen badiotzue, lekuko ezjakinek lehen bazekiten begi aurrean zituzten argazki finkoak, bideo-zintako fotogramak erakusten ari zitzaizkiela, euren lekukotza, euren deklarazioak benetan Ibar jauna zela izan ziren. Haiak askoz ere seguruago zeuden.

**JAMES E. C. PERRY EPAILEA:** Ez daukazu, halaber, autoaren ondoan zegoela eta erailketa gertatu eta berehala Ibar autoan zegoela dioen testigantza?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Lagungarria da, bai -

**JAMES E. C. PERRY EPAILEA:** Horrek ez luke indartuko lekuko presentzialaren identifikazioaren inguruko konfiantza?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Bai, noski, epaile jauna, eta etxeko lekukoak ere baditugu, Ibar jauna eta Peñalver jauna horretan kokatzen dituztenak -

**JAMES E. C. PERRY EPAILEA:** Autoan.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Auto beltz, handi, dirdiratsu batean edo beira tindatuak dituen Mercedes batean, beraz -

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Hilketaren orduari dagokionez, noiz egin ziren ohar horiek?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Erailketa gertatu eta berehala egin zituen Foy jaunak ohar horiek.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Badakit Foy jauna zegoela, baina Generi buruz ari naiz, eta uste dut bazegoela beste pertsona bat esan zuena – Foy jauna ez ziren bi pertsonak testifikatu zuten Mercedesean zegoela.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Hiru pertsona ditugu. Klimeczko<sup>12</sup> jauna, hilketaren aurretik Tec-9a<sup>13</sup> Peñalver jaunak eta Ibar jaunak zeukatela testifikatu zuena. Klimeczko jaunak testifikatu zuen Peñalver jauna eta Ibar jauna auto beltz eta dirdiratsu berri batean zihoazela. Kim Arenas daukagu, eta David Phillips ere bai, uste dut, Mercedes batean zeudela deklaratu zutenak.

**PEGGY A. QUINCE EPAILEA:** Eta horiek dira, nik jakin nahi dut erlazio dagoen hilketaren orduarekin, hilketa orduari dagokionez zein unetan egin ziren ohar horiek?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Hilketa gertatu eta gutxira, baino autoa 27 ibilbidean garretan aurkitu baino lehenago, noski. Su eman zioten. Goizean, hilketa eta gero, beraz. Goizean goiz.

**RICKY POLSTON EPAILEA, FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKO PRESIDENTEA:** Tec-9a, ustez hilketan erabili zutena, bazter utzi zuten, itxuraz. Ez zen izan Lee kaleko etxekoa?

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Hala da, bai.

**RICKY POLSTON EPAILEA, FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKO PRESIDENTEA:** Hortaz - esan zuten ez zela hilketako arma hizpide izan zutena?

---

<sup>12</sup> John Klimeczko Ibar bizi zen etxean bizi zen. Edaten eta drogak hartzen aritu zen hilketen egunean. Prozeduran zehar, hainbat aldiz aldatu zuen bere bertsioa. Hasieran esan zuen goizaldean pistola batekin irteten ikusi zituela Ibar eta Peñalver, eta auto “handi eta beltz” batean itzultzen. Beste une batean dio ez duela gogoratzen asteburu horretan ikusi zituenean. Azkenik, asteburu horretan eta ondorengoetan droga ugari kontsumitu zituela eta ez dakiela ondo zer egin edota esan zuen. Peñalver identifikatzeko eta Ibar inplikatzeko balio izan zuen “salaketa” gatik diru-kopuru jakin bat kobratu izanaren frogak ere badaude.

<sup>13</sup> Erraz identifika daitekeen eraso-arma (ikus <http://es.wikipedia.org/wiki/TEC-9>), bideoan nahiko garbi ikusten dena, hilketa eragin zuen arma zela esateko moduan. Ezaugarri horiek zituen arma bat egon zen Ibarrek eta beste hainbat pertsonak partekatzen zuten Lee kaleko etxean; zehazki, etxe horretan bizi zen Hernandez izeneko gizon batena zen arma. Nolanahi ere, Hernandezek Kordach izeneko bati saldu zion arma, hilketak gertatu baino askoz ere lehenago. Aktak dio Poliziak Kordachengandik berreskuratu zuela arma, dagozkion frogak balistikoak egin zituztela, eta erakusten zutela ez zela izan hilketa eragin zuen arma. Ibarrek dio Klimeczko ez zuela ikusi, sekula, arma horrekin. Klimeczkoaren testigantza fidagarritasunari dagokionez, ikus kasuaren laburpena, transkripzio honen ondoren erantsi duguna.

**LESLIE CAMPBELL FISKALA:** Ibar jaunak hilketaren aurretik saldu izana adierazi zuen arma berreskuratu egin zen, eta konprobatu zen ez dela hilketa eragin zuen arma. Hala ere, Klimeczko jaunak goizean, goizeko 05:00etan edo inguru horretan ikusi omen zuen arma, Peñalver jaunaren eta Ibar jaunaren eskuetan, horiek etxetik irten aurretik. Estatuak ez zuen esan, sekula, atzeman zuten Tec-9a zela hilketako arma, baina bideoan argi eta garbi dago Tec-9 bat erabili zela. Beraz, uneren batean etxean beste Tec-9a egotea eta saldu izanak ez du zerikusirik bideo-zintan ikusi dugunarekin eta dugun testigantzarekin. Eta ikusten dudanez, erabili dut nire denbora. Auzitegiak galderarik ez badu, konfiantza dut nire hitzaldian, eta Auzitegiari eskatzen diot zigor-ondoko prozesuen ukatzea berresteko eta habeas corpus eskaera ukatzeko. Eskerrik asko.

**RICKY POLSTON EPAILEA, FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKO  
PRESIDENTEA:** Kontraerantzuna.

**BENJAMIN WAXMAN:** Perry epaileak aipatutako gaiari bakarrik erantzun nahi diot, labur-labur. Ibar ez zuten sekula kokatu ez Mercedes batean eta ez beste ibilgailu batean. Klimeczkok testifikatu zuen Peñalverrekin ikusi zuela, absolbitu berri dutenarekin, eta auto beltz, handi eta dirdiratsu bat aipatzen da. Auto, beltz, handi eta dirdiratsuaren deskribapena ez dator bat Sucharski jaunaren Mercedes Coupearekin. Kimberly Sand-ek eta hango beste lekuko batzuek ez zuten Ibar jauna ezagutzen, eta ilea garondotik gora erortzen zitzaion norbait deskribatu zuten; hori ez da Ibar jaunaren deskribapena. Evans jaunaren testigantza auzitegi honek Peñalverren inguruko erabakian berretsitakoaren berdin-berdina da. Esaten dio Auzitegiari Mehmet Iscan doktoreak bideoaren kalitate txarragatik eta argiztapen baldintzengatik testifikatu zuela Peñalver kasuan, ezin zela ondorio positibo batera heldu bideoko pertsona Peñalver ote zen edo ez. Iscan doktoreak adierazi zuen desadostasunak zeudela aurpegiaren erditik beherako zatiari dagokionez, eta zintako pertsona Peñalver ez zela ondorioztatzera zeramatzatela. Ibarrek testigantza hori bera behar zuen, derrigor, eta ez zuen lortu. Testigantza hori bera eman zuen Evans jaunak zigor-ondoko entzunaldian. Esan zuen materialak oso eskasak zirela eta ezin dutela izan identifikazio zientifikoki fidagarria egiteko oinarria, Erresuma Batuko auzitegi batean ez zutela sekula onartu izango. Ibar eta hiltzailea bereizten zituzten bost ezaugarri espezifikoren inguruan testifikatu zuen. Garrantzitsua da, halaber, adierazi izana gaian adituak ez diren pertsonen, gu bezalakoek, antzekotasuna bilatzeko joera dutela, eta horregatik, pelikuletan doble bat jartzen denean pertsona hori zinemako izarra dela onartzeko joera dugula, nahiz eta benetan izarra ez izan. Epaimahaiak informazio funtsezko hori jaso behar zuen, nahitaezkoa eta oinarrizkoa zen, gainerako frogen gainetik. Ibar jauna identifikatu izana ukatu zuten beste lekuko horiei erakutsi zitzairen irudiaren iturria zen. Testigantza hori behar zuen, eta ez da bidezkoa, heriotza zigorreko kasu batean, bereziki, auzitegia honek epai honen inguruan duen konfiantza ez ahultzea.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Nik uste nuen, materialen nire irakurketatik, Ibar jauna ibilgailuan ikusi zuen pertsonaren deskribapena Perry epaileak iradoki duena baino gertuagotik zela, ez zuen ikusi auzotik irteten edo biktimaren etxearen inguruan?

**JUEZ PERRY:** Etxeko sarreran, uste dut, ez zen hala izan?

**BENJAMIN WAXMAN:** Zer?

**JUEZ PERRY:** Biktimaren etxeko sarrerarik irteten ikusi zitzaiola.

**BENJAMIN WAXMAN:** Sentitzen dut, segituan Klimeczko jaunak ikusi zuenaz eztabaidatzen hasi ginenez, pentsatu nuen -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Horretaz ari gara - hitz eginiezaz horretaz, mesedez. Nire inpresioa zen, nire lankidea ere horretan zegoela uste baitut, biktimaren etxetik zela, hain zuzen. Uste dut ez zela segundo kontua bakarrik. Segika ari zitzazkiola. Atzerako ispiluan ikusi zituela eta ibilgailuak bata bestearen ondoan jarri zirela eta Ibar jaunak goitik behera begiratu ziola zehatz-mehatz lekukoari?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez dizut ongi ulertu, Perry epaile jauna, uste nuen Klimeczko jaunaren testigantza buruz ari zinela. Foyri dagokionez, lekukoak -

**JAMES E. C. PERRY EPAILEA:** Zuzen.

**BENJAMIN WAXMAN:** Berriz ere, adituak gure zinpeko aitortzean adierazi zuen bezala, horrelako identifikazioen fidagarritasuna ahultzen duten lausotasunezko zirkunstantziak zituen bere identifikazioak.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Ulertzen dut zuk frogari eta posizioari buruzko ikuspegi hori edukitzea, baina epaimahaiak entzun al zuen denbora tarte dezente batean, eta pasarazko begirada batekin bakarrik, beste gizon bati zuzenean aurpegira begiratzen dion gizon baten testigantza?

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez, epaimahaiak Foyren testigantza entzun zuen.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Zuzen.

**BENJAMIN WAXMAN:** Eta etxean ibili zen 10 - . Gidatzen jarraitzen zuen, ez zen gelditu eta -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Ulertzen dut. Esan zuen, ordea, atzerako ispilutik ikusi zituela, ez da hala?

**BENJAMIN WAXMAN:** Hori esan zuen. Auzotik irteterakoan, gidatzen ari zen, eta gure aditua funtzio bikoitza egiten ari den norbaiten lausotasunez mintzatu zen -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Eta Ibar bidaiari gisa zihoen autoan.

**BENJAMIN WAXMAN:** Ezin izan zuten Peñalver identifikatu, gidaria.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Bueno, pentsatzen dut ez zitzazkiola halakorik eskatu.

**BENJAMIN WAXMAN:** Ez, eskatu zitzaien.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Baina Ibar identifikatu ahal izateko arrazoia horrek goitik behera begiratu izana da. Ez zuen hori testifikatu?

**BENJAMIN WAXMAN:** Hori izan zen testigantza 10 -

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Hori gertatu zen? Agertzen da aktan?

**BENJAMIN WAXMAN:** Hala da.

**R. FRED LEWIS EPAILEA:** Eta epaimahaiak hori entzun zuen.

**BENJAMIN WAXMAN:** Eta epaimahaiak jakin zuen hori eta testigantza izan zela 10-15 segundo iraun zituen zerbait izan zela, angeluan, eguzki irten berriaren aurrean, bi beira tindaturen atzetik, buru-euskarrien artetik, eta azkenean argazki-laginketa batera jo eta ez zuela argazki bat aukeratu. Bi aukeratu zituen. Gainerakoak baztertu ondoren, gure adituak identifikazio ez oso fidagarriekin lotzen den estrategia bat zela, dela, demostratu zuen eta azkenean esan zuen, honek du autoko tipoaren antzarik handiena. Hori iritzi erlatiboa da, eta identifikazio ez fidagarriekin lotutako beste identifikazio-ezaugarri bat. Eta hori da daukaten guztia. Berriz ere, errugabetzen duen kamiseta, errugabetzen duten hatz-markak dituzue froga horien guztien kontra, frogen eskema guztia jartzen da berriz ere zalantzan zigor-ondoko entzunaldi honetan, eta gure iritzia da auzitegi honek ezin duela batera konfiantzarik eduki epai honetan; beraz, epaiketa baliogabe izendatzeko eta Ibar jaunari beste epaiketa bat egiteko eskatuko genioke auzitegi honi. Eskerrik asko.

**RICKY POLSTON EPAILEA, FLORIDAKO AUZITEGI GORENEKO  
PRESIDENTEA:** Eskerrik asko zuen argudioengatik.

### **3. Auzitegi Gorenaren ezetza kasuaren jurisdikzioa Broward Countyko Auzitegiari itzultzeko eskaerari**

Broward Countyko Auzitegiko Levenson epaileak Ibarrek 2012ko otsailaren 13an planteatutako zigor-ondoko berraztertze mozioari ezetz esan zionean, Pablo Ibarren defentsak apelazioa ezarri zuen berehala Floridako Auzitegi Gorenean. Apelazio horrek Levenson epaileak bere garaian tramiterako onartutako argudioak eta aintzat hartu ez zituenak biltzen zituen.

Apelazioa planteatu ondoren, ordea, errepikatu egin zen Seth Peñalverren epaiketa, Ibar kasuko beste akusatuarena. 2006ko irailean, Floridako Auzitegi Gorenak Peñalverren epaiketa errepikatzeko agindu zuen, haren kasuan irregulartasun prozesal larriak ikusita. Astebete geroago, Auzitegi horrek berak Ibarren heriotza zigorra berretsi zuen. Nahiz eta irregulartasun berberak onartu, Auzitegi Gorenak ebatzi zuen bideotik ateratako argazkia nahiko froga zela. 2012ko abenduaren 22an, Ibarrek Floridako Auzitegi Gorenean egungo apelazioa aurkeztu eta hilabete batzuk geroago, kargu guztietatik absolbitu eta aske utzi zuten Seth Peñalver.

Ibarren defentsak gertutik jarraitu zuen Peñalverren epaiketa. Epaiketa horretan eta ondorengo ikerketan, abian den apelazioan erantsi beharreko hainbat gauza ikusi zituen Ibarren defentsak. Floridako Estatuak arrakastaz aurkaratu zuen eranskin hori, eta apelaziotik kendu behar izan ziren argudio horiek.

Apelazioa Floridako Auzitegi Gorenean egin zenez, auzitegi horri dagokio Ibar kasuaren jurisdikzioa. Argudio horiek apelazioan gehitzeko aukera ukatuta, jurisdikzioa Broward Countyko Auzitegiari itzultzeko eskatu zuen Ibarren defentsak, zirkunstantzia berri horiek han planteatu ahal izateko. Eskaera horri ere ezetz esan zion Floridako Auzitegi Gorenak 2014ko urtarrilaren 23an.

Hona hemen eskaera horren oinarriak:

- Erabakigarria da Peñalverrek bere errugabetasuna aldarrikatu ahal izana, Ibar heriotzara zigortu zuten hilketak berengatik akusatua izan eta gero; izan ere, Floridako Estatuaren arabera, Peñalverrek eta Ibarrek elkarrekin egin zituzten hilketak, eta elkarrekin egon ziren bai hilketen aurretik, bai eta horien ondoren ere.
- Peñalver krimenaren bideoan ikusten den beste hiltzailea izatetik errugabetu izanak nabarmen ahultzen du bideo-zaintzako kamera batek krimenaren lekuan grabatutako bereizmen txikiko zuri-beltzezko bideoaren leku ilun batean labur-labur ageri den pertsona Ibar den planteamendua.
- Beste arrazoi bat da Peñalverren prozesua ireki denean jakin izana Poliziaren zaintzapean jarri ondoren ezabatu egin zituztela Casimir Sucharski biktimaren klubeko bideoak, harekin eztabaida handia eduki eta itxuraz krimenaren benetako egileak zirenak grabatu zituztenak.

- Azkenik, Peñalverren kontra oraintsu zabaldutako kasuan lehen aldiz aurkeztutako frogak daude, Peñalver krimenaren egile gisa “salatzeagatik” John Klimetzko lekukoari diru-kopuru jakin bat ordaindu zitzaiola erakusten dutenak. Horregatik atxilotu zuten Peñalver, bai eta Ibar nahasi ere-

Gauza horiek guztiak oso estuki lotuta daude, era berean, Ibarrek Floridako Auzitegi Gorena aztertzen ari den zigor-ondoko berraztertze mozioan planteatutako argudioekin.

Auzitegi Gorenako egungo apelazioan zirkunstantzia berri horiek gehitzeari ezetz esan ondoren, logikoena da Broward Countyko Auzitegiak horiek alde aurretik aztertu izana. Nolanahi ere, Auzitegi Gorenak kasua Broward Countyko Auzitegira itzultzeko aukera ukatu ondoren, Broward Countyko Auzitegiak 2012ko otsailean aurreko mozioa ukatu zuenean planteatutako moduan uzten du Ibarren gaur egungo apelazioa. Floridako Auzitegi Gorenak Floridako Estatuaren berraztertze errekurtsioa ukatzen bada eta epaiketa errepikatzeko erabakia irmoa bada, epaiketa berri horretan ebatziko dira zirkunstantzia berriak.

**4. Floridako Auzitegi Gorenaren epaia, 2016ko otsailaren 4koa, Pablo Ibarren apelaziori buruzkoa**

Floridako Auzitegi Gorenaren erabakiaren hasierako orriak ekarri ditugu, Pablo Ibarrek planteatutako apelazioaren gainekoak: epai hori ez da irmoa izango Floridako Estatuak planteatzen duen balizko berraztertze errekurtsua garaiz eta forman ebatzi arte. Errekurtsua horretarako ezarritako epea amaitzeko bezperan aurkeztu zenez, Floridako Estatuaren erabakia ez da irmoa izango Auzitegi Gorenak errekurtsua baietsi edo ezetsi arte.

# **Floridako Auzitegi Gorena**

SC12-522 zk.

---

**PABLO IBAR,**  
Apelatzailea, vs

**FLORIDAKO  
ESTATUA,**  
Apelazioan  
demandatua.

---

SC12-2619 zk.

---

**PABLO IBAR,**  
Eskatzailea, vs

**Julie L. JONES,**  
**eta abar,**  
Demandatua

[2016ko otsailaren 4a]



## PER CURIAM.

Pablo Ibarrek zirkuituko epaimahai baten agindua apelatu du, epaitu zuen epaimahaiaren lehen graduko hilketaren erruduntasun prozedurak eta dagozkien heriotza zigorrak baliogabetzeko bere eskaera ezesten duena, Floridako Zigor Arloko Prozeduraren 3.851 Arauan babestuta, eta habeas corpora eskatu dio Justizia Auzitegi horri. Jurisdikzioa daukagu. Ikus Floridako Konstituzioaren V. artikulua 3 (b) (1) (9) paragrafoa.

Kasu honetan, Ibar hilketa hirukoitzarekin lotzen zuten froga fisikoak faltatu ziren. Ez zen Ibarren ADNrik aurkitu krimenaren lekuan jasotako kamiseta urdinean, Estatuaren arabera Ibarrena zen ustezko egilearen aurpegia partzialki estaltzeko erabilitakoan. Ibarrek ez zuen sekula aitortu krimena, eta irmo eutsi zion bere errugabetasunari, bera zegoen lekuaren inguruko alibia aurkeztuta, eta beti eutsi dio bere errugabetasunari.

Estatuak planteatutako kasuaren oinarria hilketen grabazio lauso bat zen, Casmir Sucharskiren, biktimetako baten, etxean jarritako bideo-zaintza kamera batek grabatutakoa. Hilketaren egileetako baten gisa identifikatu zuten Ibar, bideo-zinta horretatik ateratako argazkietatik. Horregatik, identifikazioarekin lotutako gutzia funtsezko faktorea izan zen kasu honetan.

Hasieran, beste akusatu batekin batera epaitu zuten Ibar, Seth Peñalverekin batera, alegia, baina lehenengo epaiketa baliogabea izan zen, epaimahaia ados jarri ez izanagatik. Handik aurrera, eta epaiketa bereizi batean, hilketen errudun aitortu zuten Peñalver, eta heriotza zigorra ezarri zioten. Auzitegi honek hilketengatiko Peñalverren zigorrak baliogabetu zituen, akats ugaritan oinarrituta, Peñalver vs Estatu kasuan, 926 So. 2d 1118, 1137-1138 (Fla. 2006), eta Peñalver absolbitu egin zuten epaiketa berri batean. Peñalverren defentsaren funtsezko zati bat izan zen bideo-zintako pertsonetako bat ez izatea, eta tesi hori babesteko, auzitegiko antropologiako peritu baten azterketa erabili zuen. Ibarren epaiketan, Ibarren letradu Kayo Morganek ez zituen aurpegia identifikatzeko peritu baten zerbitzuak eskatu, ezta auzitegiko antropologo batenak ere, nahiz eta Ibarrek hala eskatu eta letraduak bere eskaerari kasu egingo ziela esan.

Zigor-ondoko froga-entzunaldian, Ibarren zerbitzura zegoen letradu horrek, epaiketa garaian arazo pertsonal eta profesional zerrenda luze bat zehaztu zuenak, aitortu zuen ez zuela ulertzen "zergatik ez zen arduratu kasurako hain kritikoa zen lan horretaz", hau da, zergatik ez zituen aurpegia identifikatzeko aditu baten zerbitzuak eskatu, horren testigantza emateko, beste hainbat gabeziarekin batera.

Kontakizun honek erakusten duen bezala, Ibarren abokatu defendatzailearen gabezia ugariek eta ez-egiteek ez daukate azalpenik. Ez-egite bakar bat ere ez da izan estrategiaren batengatik, eta ez da inolaz ere onargarria lehen graduko hilketagatiko karguak dituen eta heriotza zigorra eduki dezakeen kasu baten defentsaz arduratzen den letradu batentzat. "Errendimendu eskasa"ren balizko edozein definiziotan babestuta, ezin da esan Morganek abokatu defendatzaile batek jokatu behar duen moduan jokatu zuenik Seigarren Zuzenketaren arabera akusatuarekiko zituen betebeharrak erabakigarriak betetzeko orduan.

Haren lanak gabezia ugari eduki bazituen ere, azpimarragarriena izan zen abokatuak epailetan aurpegia identifikatzeko aditu baten azterketa aurkeztu ez izana, Ibarren eta bideoan Ibar zela zioten hilketaren egilearen arteko desberdintasun fisikoak azaltzeko eta irudien kalitate kaxkarrak identifikazio fidagarria ezinezko egiten zuela erakusteko. Zehatzago azaldu dugun bezala, Ibarrek kaltetua izan zela demostratu du, hilketarekin lotzen duten froga fisikorik gabe bere kontrako froga ahulak, bideoaren ondoriozko bere identifikazioaren funtzio kritikoa eta aurrez, Ibarren zuzeneko apelazioan, identifikatutako akatsak ikusita. **Hitz gutxitan esanda, ezin dugu eduki eta ez dugu konfiantzarik epaiketa honen emaitzan. Beraz, auzitegiaren zigor-ondoko errekurtsoren ezestea baliogabetu, eta beste epaiketa bat egiteko agintzen dugu<sup>14</sup>.**

---

<sup>14</sup> Itzulpena eta azken lerroetako letra lodia “Pablo Ibar” Heriotza Zigorren aurkako Elkartearenak dira.

## **5. Floridako Estatuaren berraztertze errekurtsua Floridako Auzitegi Gorenean, 2016ko otsailaren 4an Pablo Ibarren kontrako heriotza zigorra baliogabetu eta beste epaiketa bat egiteko agintzen zuen erabakiaren kontra**

2016ko otsailaren 18an, epea amaitu bezperan, aipatutako berraztertze errekurtsua ezarri zuen Floridako Estatuak. “Pablo Ibar” Heriotza Zigorren aurkako Elkarteak adierazita zuen Floridako Estatuak ia segurtasun osoz errekurrituko zuela; beraz, berriak ez zuen ezustekorik ekarri, inolaz ere.

Errekurtsu horretan, Floridako Estatuak ez zuen aurkeztu aurreko errekurtsuan aurkeztu ez zuen ezer. Berriz ere, auzitan jarri zen aurpegiaren identifikazioan aditu zen Raymond Evansen testigantza, Ibarren eta akusazioaren oinarri den bereizmen gutxiko eta kalitate txarreko bideo-zaintzako zintatik ateratako argazkian ageri den hilketaren egilearen artean bost desberdintasun identifikatu zituenarena.

Gainera, alegatu zuen Evansek aitortu zuela ezin zuela Ibar erabat baztertu zintan ageri den pertsona izatetik. Zentzu horretan, Floridako Estatuak dio Evansek ezin duela Ibar bazter batera utzi, Ibar dela esan ezin daitekeen arrazoi beragatik, hau da, bideoaren kalitate eskasagatik, bereizmen urriagatik eta argien kontraste handiengatik.

Floridako Estatuak argudiatzen du, halaber, aurpegiaren identifikazioan aditu den edonork eman lezaken testigantza alde batera utzita, horrek ez ziola eragiten Foy lekukoaren identifikazioari, gertakarietatik aste batzuetara egindako argazki-identifikazio batean Ibarren argazkia (eta beste pertsona batena) aukeratu zuen auzokoarenari.

Bere berraztertze errekurtsuan, ez ditu aipatzen Ibarren defentsak bere errekurtsuan aurkeztutako froga guztiak, Foy jaunaren identifikazioaren inguruko zirkunstantziek horren fidagarritasuna zalantzan jartzen dutela erakusten dutenak.

Azkenik, Floridako Estatuak Ibar kasua Peñalver kasutik urruntzen saiatu da, «Floridako Auzitegi Gorenak aurrez adierazi zuen uzi hori ez zela sendo argudiatu». Peñalver hirugarren epaiketan absolbitu zuten.

Krakenbergerrek iragarri du Ibarren defentsak «egoki deritzon» argudioak aurkeztuko dituela Fiskaltzaren errekurtsu horren kontra, eta adierazi duenez, «Floridako Auzitegi Gorenak errekurtsua ebatzi dezan itxarotea» geratzen da orain.

Auzitegiak errekurtsua ezesten badu, irmoa izango da horren erabakia, eta Pablo Ibarrek «bere errugabetasuna demostratu ahal izango du, azkenean, letraduaren defentsa eraginkorra edukiko duen epaiketa batean». «Normalki, bi eta lau hilabete arteko epean ebazten dira horrelako errekurtsuak», ondorioztatu du.

## 6. Pablo Ibarren kasuaren laburpena

1994ko ekainaren 27an, Casimir Sucharskiren (48 urte) eta Sharon Anderson eta Marie Rogers modeloen (25 urte) gorpuak tiroz hilda agertu ziren Sucharskiren etxean. Casimir Sucharski “Casey’s Nickelodeon” gau klubaren jabea zen. Bere segurtasuna zela-eta, oso kezkatuta zeramatzan Sucharskik bi aste. Hilik agertu baino zortzi egun lehenago, bideo-zaintzako kamera bat ezarrarazi zuen bere etxeko egongelan. Arazotan ibilia zen bere emazte ohiarekin, eta orain emaztea gustuko ez zuen pertsona batekin bizi zen. Pertsona hori narkotrafikatzailea zen susmoak zituen. Hilketan baino egun batzuk lehenago, eztabaida handi bat eduki zuen Sucharskik bere klubean, mehatxu egin zioten bi pertsonarekin<sup>15</sup>.

Bere segurtasunaren inguruko kezka ez zen izan funtsik gabea, hiru hilketa gertatu baitziren. Kamerak den-dena grabatu zuen<sup>16</sup>. Zuri-beltzezko kamera bat da, eta bereizmen urriko eta argi aldetik kontraste handiko irudiak ematen ditu. Irudietan, 07:18ean etxean bi pertsona sartzen direla ikusten da; batak txapela eta betaurrekoak ditu, eta besteak, burua kamiseta batekin estalita. Hiru biktimak nola jotzen eta hiltzen dituzten ikusten da, lotu eta 20 minutuz jipoitu ondoren. Sucharski botak nola erantzten dizkioten ikusten da. Poliziak uste du botetan 10.000 eta 20.000 dolar inguru egon zitezkeela eskudirutan (7.600 eta 15.200 euro artean). Krimearen ondoren, burua kamisetarekin estalita zuena gelako alde ilun batean sartzen da, eguzkiaren argi indartsua leihoetatik sartzen dela, kamiseta kentzen du eta kamerak denbora labur batean grabatzen du. 07:40ean, krimenaren egileak etxetik irteten dira. Une horretakoak dira bideotik ateratako aurpegi lauso baten argazkiak; bertan, egileak bibotea duela ikusten da. Kamisetako izerdiak DNA profil bat ematen du.

Poliziak bederatzi milimetroko bala-zorroak aurkitu zituen; biktimetako baten odolarekin egindako oinatz bat; hatz-markak eta DNA ateratzeko balio izan duten ileak; maskara bat eta kamiseta. Bideoa ere berreskuratu zuen. Irudi horiek ziren Poliziaren pista nagusia. Bideoan ageri zen aurpegi lausoa banatu zuten, eta hiru aste geroago, beste barruti bateko komisaria batean, ustez ezagutu egin zuen agente batek. Lapurreta batengatik atxilotu berri zituzten Ibar eta horren lagun batzuk.

Lekuko batek, Sucharskiren auzokide Gary Foyk, Sucharskiren Mercedes deskapotablea gidatzen ikusten ditu erasotzaileak, hiru hilketen ondoren. Ibilgailu hori kiskalita agertuko da ondoren. Foyk haien aurretik gidatzen du denbora-tarte labur batean, eta ibilgailuko bidaiariei erreparatzen die. Ibar identifikatzen du<sup>17</sup>.

---

<sup>15</sup> Seth Peñalverren absoluizioan erabakigarria izandako gauzetako bat da eztabaida grabatu zuen bideoa Poliziaren zaintzapean egon izana eta Poliziaren zaintzapean zegoen bitartean ezabatu izana.

<sup>16</sup> Bideo-kamera honek zuri-beltzezko irudiak ateratzen ditu, bereizmen urrikoak eta argi aldetik kontraste handikoak. Irudiek nahiko garbi adierazten dituzte gertakariak, baina mundu ospetsu den Manchesterreko Unibertsitateko (Erresuma Batua) aurpegi identifikazioan aditu Raymond Evansen arabera, ez dute identifikazioa egiteko behar den kalitatea.

<sup>17</sup> Gary Foyren identifikazioa Ronald Fisherrek desegin zuen, Floridako Nazioarteko Unibertsitateko psikologia irakasle eta unibertsitate horretako Lege Psikologia Programaren koordinatzaileak, argazkietan eta identifikazio-saioan egindako identifikazioaren moduagatik. Hori da Floridako Auzitegi Goreneko oraingo apelazioan aurkeztutako argudioetako bat.

Ez dago froga fisiko inkriminatzailerik. Krimenaren lekuan aurkitutako froga bakar batek ere ez ditu inkriminatzen ez Ibar eta ez beste susmagarria, Seth Peñalver. Etxean aurkitutako hatz-markak eta ustez Ibar zenaren burua estaltzen zuen kamisetako DNAk ez dira bietako inorenak. Peñalverren autoa aztertu zuten, odolik zegoen ikusteko: ez zegoen odolik.

Tanya Ibarrek, Pablaren emazteak, eta horren familiak ondo baino hobeto dakite hilketak gertatu ziren unean Pablo etxean zegoela. Erraza izan zen Pablo berarekin zegoela gogoratzea. Bi gazteak Tanyaren gelan harrapatu zituzten senide batzuk, eta liskarra eragin zuen horrek. Tanyaren gurasoak Irlandan zeuden, eta Irlandara deitu zieten, telefonoz, gertatutakoaren berri emateko. Deien datak bat zetoenez, erraza izan zen une hartan Pablo han zegoela egiaztatzea<sup>18</sup>.

Poliziak Ibarren eta Peñalverren ezagun eta senideei erakutsi zizkien bideoako irudiak. Poliziak ziurtatu du batzuek ezagutu egin dituztela. Lekukoek diote, ordea, haien antza zutela bakarrik esan zutela, eta ez zekiteka identifikazio bat egiten ari zirela.

Ibar eta Peñalver nahasi zituzten beste lekuko batzuk agertu ziren. Horietako bat John Klimectzko izan zen, Ibar bizi zen etxean bizi zena. Hilketen egunean, edaten eta drogak hartzen aritu zen. Prozeduran zehar, hainbat aldiz aldatu du bere bertsioa. Hasieran esan zuen goizaldean pistola batekin irteten ikusi zituela Ibar eta Peñalver, eta auto “handi eta beltz” batean itzultzen. Gero, ez dela gogoratzen asteburu horretan ikusi izanaz. Azkenean dio asteburu horretan eta ondorengoetan droga ugari hartu zituela, eta ez dakiela ongi zer egin edota esan zuen<sup>19</sup>.

Pablo Ibarri eta Seth Peñalverri heriotza zigorra jarri zieten. Apelazioan, Floridako Auzitegi Gorenak balio gabetu egin zuen Peñalver heriotza zigorrera zigortu zuen epaiketa, prozesuan irregulartasun ugari egon zirela eta epaiketa errepikatu egin behar zela ebatzita. Peñalverren kasua ebatzi eta gutxira, Ibarren heriotza zigorra berretsi zuen Floridako Auzitegi Gorenak, nahiz eta Peñalverren kasuko irregulartasun berberak ikusi. Peñalverrekiko desberdintasun handia azken horren kasuan erasotzailea betaurrekoekin eta txapela batekin estalita agertzean eta bideoan apenas ikustean datza.

---

<sup>18</sup> Pablo behin-behineko espetxealdian zegoela ezkondu zen Tanya Ibar berarekin, errudun egin eta heriotzara zigortu baino lehen. Tanya Pablarekin ezkondata dago, oraindik, eta jo eta ke ari da lanean Pablo errugabea dela frogatzeko.

<sup>19</sup> John Klimectzkok Peñalver identifikatzeko eta Ibar inplikatzeko balio izan zuen “salaketa” gatik dirukopuru jakin bat kobratu izanaren froga daude, Peñalverren epaiketa errepikatu zenean lehen aldiz aurkeztu zirenak.

## 7. Pablo Ibarrek auzitegietan egindako ibilbide luzea

Bi akusatuen aurkako lehen epaiketa Fort Lauderdale izan zen, Floridan, 1997ko maiatzaren 5ean, eta baliogabetu egin zuten 1998ko urtarrilaren 25an, epaimahaia epaiaren inguruan ados jarri ez izanagatik.

1999ko urtarrilaren 11n hasi zen bigarren epaiketa. Epaimahaia aukeratzeko fasean, atxilotu egin zuten Pablo Ibarri ezarritako ofiziozko abokatuak, Kayo Morgan, genero indarkeriagatik gertakari batean haurdun zegoen bere bikotekideari eraso egin izanaz akusatuta. Pablo Ibarrek abokatuak uzteko mozioa aurkeztu zuen, baina auzitegiak ezetsi egin zuena, bai eta epaiketa atzeratzeko mozio bat ere; azken hori baietsi egin zuten. Seth Peñalverren epaiketak aurrera jarraitu zuen, eta heriotza zigorra ezarri zioten. Pablo Ibarren hirugarren epaiketa 2000ko apirilaren 17an hasi zen, epaimahaiak errudun deklaratu zuen ekainaren 14an, eta zigorra erabakitzeko faseari ekin zitzaion 2000. urteko uztailearen 24an, Pablo Ibarren heriotza zigorra ekarriko zuena.

Garai hartan, Floridan heriotzera zigortutako Joaquin Jose Martinez espainiarraren kasuak denok ezagutzen dugun amaiera zoriotsua edukitzea lortu zuen Peter Raben abokatuak. Ibar familiak haren zerbitzuak kontratatu zituen, Pablaren abokatu defendatzailea izateko.

Peter Rabenen eskutik, apelazioa aurkeztu zuen Pablo Ibarrek Floridako Auzitegi Gorenean; horren arabera, Pablori ukatu egin zitzaion bidezko epaiketa baterako eskubidea, heriotza zigorrera zigortu zuen epaimahaiak hainbat erabaki oker hartu zituelako frogaz zirkunstantzialetan eta fundamentu eskasekoetan oinarrituta, eta horrek prozeduraren fidagarritasuna ahultzen du. Bere apelazioan, Konstituzioaren aurkakotzat jotzen du kasu horretan heriotza zigorra ezarri izana ere. Apelazioan, lehen aipatutako prozedura-irregularitasunengatik Floridako Auzitegi Gorena epaiketa baliogabe deklaratzera eta beste epaiketa bat egiteko agintzera eraman zuten 112 aurrekari aipatzen dira.

Pablaren helegitea ebatzi aurretik, Floridako Auzitegi Gorenak erabaki zuen Seth Peñalverren kasuan beste epaiketa bat egitea, horren abokatuak antzeko apelazioa aurkeztu ondoren. Horrek baikortasuna ekarri die Pablori, horren familiari eta bidezko epaiketa baterako eskubidea izan dezan Pablaren alde gauden guztioi. 2006ko irailaren 7an, baina, Floridako Auzitegi Gorenak ezetsi egin zuen Pablori beste epaiketa bat eskatuz egindako eskaera. Pablo heriotzara zigortu zuen epaiketan irregularitasun larriak egon zirela onartu zuen Auzitegi Gorenak bere epaian, baina bideoa erabakigarria dela ebatzi zuen.

Hori dela-eta, bere defentsa estrategia berriz planteatu beharra zeukan Pablo Ibarrek. Benjamin Waxman abokatuaren zerbitzuekin, heriotzera zigortu zuen jatorrizko auzitegira itzuli, eta Floridako Estatuaren 3.851 arauaren arabera mozioa planteatu behar zuen, bai eta garai hartan eduki zuen ofiziozko abokatuaren defentsa desegokia izan zela ere. 2009ko martxoan izan zen, auzitegi horretan, mozio horren frogaz-entzunaldia.

Froga-entzunaldia baino pixka bat lehenago, Floridan audientzia handia duen telebistako programa batean Pablo Ibarren egoeraren berri eduki zuen ezusteko lekuko

batek telebista programa horretan bertan adierazi zuen Pablo Ibar heriotza zigorrera eramán duen hilketa hirukoitzaren egilea William Ortiz dela, eta Pablo Ibar heriotza zigorrera eramán duen krimenarekin batere zerikusirik ez duen beste krimen bategatik dagoela kartzelan, biziarteko kartzela zigorrarekin.

Ezusteko lekuko horren adierazpenen inguruan aurkeztutako mozioaren ondorioz, Broward Countyko Auzitegiako Levinson epaileak Pablo Ibarren eskubide konstituzionalen gaineko mozioa alde batera uztea eta aurrena ezusteko lekukoaren mozioaz arduratzea erabakitzen zuen. Testuinguru horretan egin zen hatz-marken eta DNA frogen alderaketa, Ortizen DNAREN eta hilketa hirukoitzaren lekuan jasotakoaren artekoa. Floridako Estatuak ahalik eta gehien atzeratu zituen froga horiek, DNAREN ematea atzeratuta eta, batez ere, mota guztietako trabak jarrita frogak egiteko hautatutako laborategiei. Azkenean, hatz-marken zein DNAREN alderaketa negatiboak izan ziren.

DNAREN analisisia eta hatz-marken alderaketa negatiboak izateak ez zion zertan kalte gin Pablo Ibarren kasuari; izan ere, Pablaren eskubide konstituzionalei buruzko mozio nagusia indartzen zuen horrek: Ortiz errugabetu egin zuten, bere hatz-markak eta DNA ez zetozelako bat krimenaren lekuan jasotakoekin. Horrek are gehiago azpimarratzen du Pablo Ibarren hatz-markak eta DNA ere hilketaren lekuan jasotakoekin bat ez etortzea.

Azkenean eta atzerapen handiarekin, Levenson epaileak ezetsi egin zuen, 2012ko otsailaren 13an, Pablo Ibarrek aurkeztutako zigor-ondoko berraztertze mozioa. Berehala eta zegokion epearen barruan, Levenson epailearen ebazpena apelatu zuen Ibarren defentsak, Floridako Auzitegi Gorenean.

Apelazio horren bista 2014ko apirilaren 8an izan zen. Floridako Auzitegi Gorenak 2016ko otsailaren 4an egin zuen publiko bere ebazpena.

## 8. Pablo Ibarrek Floridako Auzitegi Gorenean egun egindako apelazioaren argudioak

Apelazio honen bista 2014ko apirilaren 8an izango da, Floridako Auzitegi Gorenean. Argudio hauetako batzuk Broward Countyko Auzitegian aurkeztutako zigor-ondoko berraztertze mozioan aurkeztu ziren, eta auzitegi horrek ez zituen batzuk tramitera onartu. 2012ko otsailaren 12an Broward Countyko Auzitegiak zigor-ondoko berraztertze mozioa ezetsi zuenez, Pablo Ibarren defentsak argudio horiek guztiak aurkeztu ditu apelazioan, Floridako Auzitegi Gorenak ebazteko.

- **Raymond Evansen zinpeko aitorpena.** Aurpegiaren identifikazioan aditua da Manchesterreko Unibertsitatean (Erresuma Batua), mundu osoan ospetsua. Bere aitorpenean dio bideoan ageri den aurpegitik ezin dela Ibar identifikatu. Hemen ikus daiteke bere aitorpen osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/revans.htm>
- **Kayo Morganen zinpeko aitorpena.** Pablo Ibarren abokatua izan zen heriotzara zigortu zuen epaiketari. Aitorpen honetan, Pablo Ibar behar bezala defendatzeko bere ezgaitasuna onartzen du. Hemen ikus daiteke bere aitorpen osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/kmorgan.htm>
- **Anthony Falsettiren zinpeko aitorpena.** Floridako Unibertsitateko auzitegi antropologia irakaslea; Pablo Ibarren ofiziozko defentsak ez zion kontsultarik egin. Peñalverren defentsak, aldiz, bai, eskatu zituen bere zerbitzuak. Ibarrek bere zerbitzuak erabiltzeko eskatu zion bere ofiziozko abokatuari, Kayo Morgani, baina ez zion kasurik egin. Hemen ikus daiteke bere aitorpen osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/afalsetti.htm>
- **DNAREN analisiaren txostena.** Txosten honek argi eta garbi dio krimenaren egilearen kamisetako DNA ez datorrela bat ez Pablo Ibarrenarekin, ez eta biktimenarekin ere. Pablo Ibarren aurkako egozketa-froga nagusia izandako bideoan, buru-beroki gisa daraman kamiseta kentzen, izerdia lehortzen eta kamiseta lurrera botatzen ikusten da egileetako bat. Une hartako fotograma ukitu bat da Pablo Ibarren kontrako egozketa-froga nagusia. Hemen ikus daiteke txosten osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/adn.htm>
- **Miramarreko Polizia Departamentuaren Txostena,** egileak krimenaren lekura eraman zituen gidariari buruzko informazio berriarena. Froga hau ez zen defentsaren esku jarri Pablo heriotzara zigortu zuen epaiketari. Hemen ikus daiteke txosten osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/miramar.htm>
- **Poliziak erabilitako eta ofizialki Pablo Ibarren defentsari eman gabeko hainbat pisten aipamena.** Horien arabera, bideotik ateratako argazki lausoan oinarritutako beste hainbat identifikazio zeuden. Hemen ikus daiteke aipamena: <http://www.pabloibar.com/paginass/pistas.htm>
- **Robert Stotlerren zinpeko aitorpena.** Ikertzaile pribatua da, eta defentsaren eskariz aritu zen Pablo heriotzara zigortu zuen epaiketari, baina ez zuten deklaratzera deitu. Hemen ikus daiteke bere aitorpen osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/rstotler.htm>



- **Clifford Mugnierren zinpeko aitortpena.** Pablaren defentsak hura heriotzera zigortu zuen epaiketan kontratatutako ingeniaria. Ofiziozko abokatuari emandako txosten batean, Pablo Ibar hilketa burutu zuen pertsona baino 5 zentimetro altuagoa dela zehaztu zuen. Hiltzailearen argazkia da Pablo Ibarren kontrako egozpen-froga nagusia. Hemen ikus daiteke bere aitortpen osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/cmugnier.htm>
- **Stephen Kiralyren zinpeko aitortpena.** "Riley, Kiraly Investigations" ikerketa bulegoko zuzendaria da. Ameriketako Estatu Batuetako eta mundu osoko enpresetako abokatuen kasuak ikertzen eta prestatzen laguntzen du bulego honek. Pablo Ibarren oraingo abokatuak eskatuta, Pablo Ibar heriotza zigorrera zigortu zuen kasuaren moduko kasuetan egin beharreko ikerketa-lanen azterketa eskaintzen du, eta gaur egun egindako ikerketa argi dezakeen hautatze-lanen jarraipena egiten du. Hemen ikus daiteke bere aitortpen osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/skiraly.htm>
- **Ronald Fisherren zinpeko aitortpena.** Psikologia irakaslea eta Lege Psikologikoa Programaren koordinatzailea da Floridako Nazioarteko Unibertsitatean. Pablo Ibarren gaur egungo abokatu harremanetan jarri da berarekin, Gary Foy lekukoa hilketen goizean biktimaren etxetik atera zen pertsona Pablo Ibar zela identifikatzailea (eta fidagarri izatera) eraman zuten prozeduren edozein intzidentzia zehazteko eta berak edota bere antzeko esperientzia duen beste pertsona batek Ibarren ofiziozko abokatuari Foyrekin lotutako identifikazioaren inguruko gaiak argitzen laguntzerik ba ote zuen esateko. Hemen ikus daiteke bere aitortpen osoa: <http://www.pabloibar.com/paginass/rfisher.htm>

## 9. Ibar kasuaren kronologia: data eta gertakari garrantzitsuak

1994ko ekainaren 26a	Casimir Butch Casey Sucharskiren, Marie Rogersen eta Sharon Andersonen hilketak gertatzen dira. Itxuraz drogaren munduarekin lotutako mehatxuak jasoak zituen Sucharskik eta, horregatik, bideo-zaintzako kamera bat ezarri zuen bere etxean. Kamera horrek zuri-beltzeko irudiak ematen ditu, bereizmen urrikoak eta, gelan duen posizioagatik, argi aldetik kontraste handikoak. Irudietan, krimenaren bi egile etxean sartzen ikusten dira, eta galdeketa egin ondore, biktimak gogor jipoitzen eta hiltzen. Irudiaren kalitatea ez da nahikoa, argi eta garbi, inor fidagarritasunez identifikatzeko.
1994ko uztailaren 14a	Pablo Ibar drogekin trapitxeoan <sup>20</sup> ibiltzen zen Alex Hernandez lagunarekin; Kolonbiako lagun batzuen etxera joan, eta eztabaida gogorra edukitzen du haiekin, kolonbiarrek eurekin dituzten zor batzuegatik. Norbaitek Poliziari hots egiten dio, eta atxilotu eta komisariara eramaten dituzte. Komisarian, Ibarrek Casimir Sucharskiren etxeko bideoan ageri den hiltzaileetako baten antza duela pentsatzen du norbaitek. Horren ondorioz, hilketaren hirukoitzaren karguak formulatzen ditu Miami Dadeko Poliziak bere aurka.
1994ko abuztuaren 8a	Browardeko Konderrian heriotza zigorra eragin dezaketean hiru giza hilketaz akusatzen dituzte Pablo Ibar eta Seth Peñalver.
1995eko martxoaren 23a	Kayo Morgan Ibarren ofiziozko abokatu izendatzen dute.
1997ko maiatza	Pablo Ibarren eta Seth Peñalverren baterako epaiketa hasten da.
1998ko abuztuaren 25a	Lehenengo epaiketa epaimahaikideen adostasunik gabe amaitzen denez, baliogabetu egiten dute.
1999ko urtarrilaren 11	Beste epaiketa bati begirako sumarioa hasten da.
1999ko urtarrilaren 29a	Haurdun dagoen emakume bati eraso egiteagatik atxilotzen dute Kayo Morgan, Ibarren abokatua; Peñalverren eta Ibarren piezak bereizten dira, eta prozedura desberdinak jarraitzen dituzte.
2000ko apirilaren 17a	Ibarren bigarren epaiketa hasten da, bereizita.
2000ko ekainaren 14a	Ibar errudun deklaritzen dute
2000ko uztailaren 24a	Epaimahaiak heriotza zigorra gomendatzen du Ibarrentzat, aldeko 9 bozkarekin eta kontrako 3rekin.

---

<sup>20</sup> “Ni ez nintzen aingerutxo bat, istilutan sartu nintzen eta gauza txar asko egin nituen, eta damututa nago, baina ez naiz hiltzailea. Nik ez dut inor hil sekula” esan du beti Ibarrek. Gaur egun bere bizitzako fase horri atzera begiratuta, gaztaroko erokeriatzat jotzen du Pablok.

2000ko uztailaren 27a	Seth Peñalverri heriotza zigorra ezartzen diote beste epaiketa batean.
2000ko abuztuaren 28a	Browardeko Konderriko Lehen Auzialdiko epaileak heriotzera zigortzen du Ibar.
2006ko otsailaren 2a	Peñalverren erruduntasun deklarazioa eta heriotza zigorra baliogabetzen dituzte [Peñalver <i>versus</i> Floridako Estatua, 926 So. 2d 1118 (Fla. 2006) – Floridako Auzitegi Gorena]
2006ko martxoaren 9a	Ibarren erruduntasun deklarazioa eta heriotza zigorra berresten dituzte [Ibar <i>versus</i> Floridako Estatua, 938 So. 2d 451 (Fla. 2006) Floridako Auzitegi Gorena]
2007ko otsailaren 20a	Ameriketako Estatu Batuetako Auzitegiak Ibarren kasuaren berraztertzea ezesten du [Ibar <i>versus</i> Florida, 127 S. Ct 1326 (2007) Ameriketako Estatu Batuetako Auzitegi Gorena]
2008ko otsailaren 19a	Ibarrek zigor-ondoko berraztertze mozia aurkezten du, errugabetasun deklarazioa eta heriotza zigorra baliogabetzeko eskatuz, Floridako Estatuak Ibarren aldeko frogak kendu izanagatik letraduaren defentsa ez eraginkorra izan zelako.
2009ko martxoak 16-19	Froga-entzunaldia, Ibarrek planteatutako helegitea aztertzeko.
2009ko apiriletik 2010eko urrira	Juan Gispert ezusteko lekukoak identifikatutako Willian Ortiz hilketa hirukoitzaren egile susmagarriaren inguruko ikerketa/auzia. Aldi horretan, Ortizen hatz-markak, DNA eta ilea hilketa hirukoitzaren lekuan aurkitutako frogekin alderatu ziren.
2012ko otsailaren 12a	Browardeko Konderriko zirkuituko Jeffrey Levinson epaileak Ibarrek planteatutako zigor-ondoko berraztertze mozia ezesten du.
2012ko martxoa	Ibarrek zigor-ondoko berraztertze mozioren aurkako apelazioa aurkezten du Floridako Auzitegi Gorenean.
2012ko ekaina	Seth Peñalverren kontrako hirugarren epaiketaren hasten da.
2012ko abenduaren 22a	Peñalver kargu guztietatik errugabetzen dute eta aske uzten dute.
2013ko ekainaren 13a	Defentsak Seth Peñalverren absoluzioaren ondoriozko hainbat argudio eransten ditu Floridako Auzitegi Goreneko apelazioan.
2013ko irailaren 26a	Floridako Estatuaren eskariz, Ibarren apelaziotik Peñalver kasuaren aipamen oro kentzeko egintzen du Floridako Auzitegi Gorenak.

2014ko urtarrilaren 23a	Floridako Auzitegi Gorenak jurisdikzioa Broward Countyko Auzitegira itzultzeko eskaera ezesten du.
2014ko apirilaren 8a	Pablo Ibarren apelazioaren bista, 2012ko martxoan formulatutakoa, Broward Countyko Auzitegiko Jeffrey Levinson epaileak urte horretako otsailaren 12an Ibarrek heriotzera zigortu zuen epaiketa errepikatzeko eskatuz planteatutako zigor-ondoko berraztertze mozioa ezetsiz emandako ebazpenaren kontra.
2016ko otsailaren 4a	Aldeko lau bozkarekin eta kontrako hirurekin, Pablo Ibarren epaiketa errepikatzeko agintzen du Floridako Auzitegi Gorenak, horren errugabetasun deklarazioa eta, ondorioz, heriotza zigorra baliogabetu ondoren. Ebazpen hori ez da epai irmoa izango Floridako Estatuak dagokion epean eta moduan ezar lezaken balizko berraztertze errekurtsoa ebatzi arte.
2016ko otsailaren 18a	Floridako Estatuak Floridako Auzitegi Gorenaren erabakiaren aurkako berraztertze mozioa ezartzen du. Errekurtsoa aurkezteko unean, ebazpenerako 2-4 hilabete beharko direla aurreikusten da. Aurreikuspen horrek Floridako Auzitegi Gorenak horrelako errekurtsoak ebazteko behar izaten duen batez besteko denbora du oinarri.

#### **10. OHAR GARRANTZITSUA:**

“Pablo Ibar” Heriotza Zigorraren aurkako Elkartearen asmoa ez da, inolaz ere, hilketa hirukoitz horren biktimak eta horien senideak ahaztea.

Prentsako dossier honen edukia ez da pentsatu, inolaz ere, indarkeriaren bidez hurkoari ondorio larriak eta senide baten heriotzaren samin ikaragarria eragiten dizkiotenak zurrizteko.

Biktinek ere justizia behar dute.

Alde batetik, bidezko epaiketa defendatzen dugu, hilketa hirukoitzaren benetako egileak zigortuko dituen, eta, bestetik, pertsona guztiek -gaizkileek barne- duten oinarrizko eskubidea, bizitzeko oinarrizko eskubidea, urratuko ez duen zigorra.